



ASTI-LEKU ELKARTEAK JARRITAKO ERREKURTSOA EZETSITZAT JOTZEA ERABAKI DA. BIZKAIKO FUTBOL FEDERAZIOKO KIROL LEHIAKETARAKO ETA DIZIPLINARAKO LURRALDE BATZORDEAK ENTRENATZAILEARI 2015EKO OTSAILAREN 24AN JARRITAKO ZEHAPENAREN AURKAKOA ZEN AIPATUTAKO ERREKURTSOA.

Espediente-zenbakia: 12/2015

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2015eko martxoaren 5ean Kirol Justiziako Euskal Batzordearen Idazkaritzan jaso zen Asti-Leku Elkartearen logoa eta zigiluak zituen dokumentu bat, eta elkarteak dokumentu horrekin Bizkaiko Futbol Federazioaren Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak elkarteko entrenatzaile [REDACTED] jaunari jarritako zehapenari errekurtsoa jarri ziola adierazi zuen.

Bigarrena.-Asti-Leku elkarteak aurkeztutako idatzia aztertu ondoren, egiaztatu da ez dagoela sinatuta; horrez gain, ez dira agertzen erakundearen ordezkartzan errekurtsoa jarri duen pertsonaren datuak.

Hirugarrena.- Asti-Lekura jakinarazpen bat bidali zen, hamar eguneko epea zuela adierazitako errekurtso hori behar bezala sinatuta aurkezteko eta, bestetik, dokumentua sinatu eta aurkeztu zuen pertsonak errekurtsoa jarri duen erakundearen ordezkartzan ari dela egiaztatzeko. Era berean, idatzi horretan jakinarazi zitzaion horrelakorik egingo ez balu errekurtsoa ezetsitzat joko dela 30/1992 Legeko 71. artikulua araber.

Idatzi hori elkarteak 2015eko apirilaren 10ean jaso zuen.

Laugarrena.- Klubeko ordezkariak ez diote inolako erantzunik eman errekerimenduari.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK



Lehenengoa.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

Era berean, aipatzekoa da uztailaren 23ko 391/2013 Dekretua; izan ere, eskola-kirolaren lehiaketetan diziplinako ahala ematen dio, hasiera batean, parte-hartzaileen eskola-kiroleko erakunde eskudunei eta, bigarrenik, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari.

Bigarrena.- Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera, administrazio-errekurtsioak errekurtsogileak sinatu behar ditu (110.1 c artikulua), era berean, erakundearen ordezkari-tziaztagiria ere aurkeztu behar da *zuzenbidean ziurtasun fidagarria ematen duen edozein euskarri onargarriren bitartez* (32. artikulua).

Errekurtsio honek ez zituen ez bi baldintzak betetzen, interesdunari horren berri eman zitzaion eta hamar eguneko epea eman zitzaion behar zen zuzenketa egiteko, 30/1992 legeko 71. artikuluan aurreikusitakoaren eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005eko Dekretuko 16.4 artikulua arabera.

Zuzenketa hori ez zenez egin, errekurtsioa ezetsizat joko da eta jarduketak artxibatatu egingo dira.

Ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak hau

ERABAKI DU



Errekurtso hau amaitutzat ematea ezesteagatik eta jarduketak artxibatzeagatik.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 19a.

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA